

74R

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

297n. zenbakia
uztailla-dagonilla 2004



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



LIEBANA

**GOMUTAKIZ BETERIK
AURRETIKOEN FEDEA
EUSKALERRITIK URREAN**

ERAKUNDEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN BATZORDEA (2004-01-29)

Lendakaria: Olazar eta Uribe'tar Martin
Lendakari-ordea: Barroeta eta Amorroto'tar Klaudio.
Kudeatzaillea: Fernandez eta Ruiz de Eskide'tar Karmele.
Idazkaria: Atutxa ta Agirre'tar Paul
Maikoak: Egurrola'tar Iñaki
 Solozabal'dar Paulin
 Malaxetxebarria'tar Jon
 Ormaetxe'tar Emilio

ELEIZAREN EDESTIA EUSKERAZ

GURA DOZU IRAKURRI ELEIZEAREN EDESTIA EUSKERAZ?

Bixente Letiegi'ren liburuak eskatu egizuz:

- I.- Apostoluen eta martirien denporako Eliza.
- II.- Elizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eleiza.
- III.- San Ignazio'ren denporako Eliza. (Ez dago).
- IV.- Denpora barrietako Eliza.
- V.- Demokraziaren denporako Eliza.
- VI.- Denpora auetako Eliza.
- VII.- Euskal kristautasunaren sorkuntza.
- VIII.- Euskal kristautasunaren sendokuntza.

IX.- Euskal kristautasunaren zabalkuntza.
Liburu bakoitza 500 orrialde inguru dira.

Ordaiña: Bakoitza sei euro.
Baiña irakurri nai ba'dozuz eta ezin erosi, egizu berba geugaz. Doan emoteko be gertu gagoz, fedea indartzeko ta euskerea zabaltzeko eta irakurtekotan.

Eskatu: Martin Olazar
XXIII Jon Z. enparantza 2.
48100 Mungia - Bizkaia
Tel: 94 674 01 23

ZER-BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ ALDIZKARIA

Egillea:	"Euskerazaleak"
Kudeatzaillea:	Fernandez'tar Karmele
Idazkola:	"Euskerazaleak"
Zuzendaria:	Olazar'tar Martin (Euskerazaintzakoa)
Idazleak:	Atutxa'tar Paul (Euskerazaintzakoa) Arrinda'tar Anes (Euskerazaintzakoa) Aldalur'tar Justiñe Egaña'tar Gotzon Solozabal'dar Paulin (Euskerazaintzakoa) Martiaru'tar Iñaki Latiegi'tar Bixente (Euskerazaintzakoa)

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

Bizi-naiaren ezaugarri

DEZTERATU BEAR DUGUN IZKILLUA

Dinamikazko ekintza omen da bizitzarekiko neurgailurik ziurrena. Euskal bizitzak 2004 urtea ikutu-ba-du, ez da eragin-bideetatik ertzeke egonean eta itxirik bizi izan dalako, noski; dabillen Erri irikiaren ekintzaletasuna berarekin dakarrelako baizik.

Oraintxe bertan bizitzen ari gaituzuten urte trumoitsu auek, zer dira bizi-nai gartsu baten uneak baiño? Bere iltzarre, sarraski ta gogorkeriarekin, agirian dugu gure Erri-buruaren defentsa, bizi-irrika. Errepublikaldiak ere, zer ekarri zigun aberri-lanetarako leia, alegiña ta zainikara baiño? Ta betiko gudak? Jarrai Edestiari ta gogartu Sabin'en etsipenezko politika-aldia ta abertzaletasunaren aldeko burruka-sorrera berria.

XIX'gn. gizaldi osoa, Lege Zarren aldeko bi karlatar gudak, zer besterik adierazten digute gure etengabeko erri-defentsiba ta il-naieza griñatsua baiño? Nork esan dezake, gure Erria, nekazari-kultura ta giroan geienbat biziarren, zego-kion politika-aldera oldarki jokatzeko mentalizaturik izan ez danik? Nork esan dezaiguke aske bizi-naiari bizkar-emanik iraun dugunik?

Antziñateko gertaerak, urrutitasunak goxatuta, oso paketsu deritzaizkigu; baiñan, orduan ere, ta aldiko begiekin, ez genituzke oraingoko gertaerekin alderaturik oso ezberdiñak irudituko. Orduango erregeak, Gaztela'ko erregek alegia, guk ala naita gure buru izateko aukeratu genituanak, zirika ta atzaparka zetozkigun Erri-egituran zirrikituak iriki-zale ta askatasun-puxkak eraman-irrikaz. Gureari gogor eusten geniola ikusita, itz goxoz esti-egin... eta urrengo errege-eraso arte!

Beti izan genituan gure Erritasunaren aldeko gertaera oñazetsu ta odoltsuak. Zein gogoratzen da, XVII'gn. gizaldian, "gatzarekiko zerga" gaztelarrak ordaindu-erazi nai zigutela-ta, ustegabeen, gure inuxentekeriz eta errege-saldukeriz gogorrean il zizkiguten sei bizkaitar aietaz? Ez ote zan terrorismua izan ua? Zergatik eta zeñien aldetiko terrorismua? Orra ba, "politikazko batasun betean" gure "babesle ta defentsarien" basakeria. Sei erri-martiri oiei eskerrak salbatu zuan Bizkai'ak (eta batera, beste euskal erkiak) bere Foru edo Kostitutuzio berezia. Gatzarekiko arazo ontan, besoak antxumatu eta errege-aginduetara makurtu izan ba'giña...

Errege Katolikuak Naparroa'n su-ta-gar sartu ziranean, Xabier'tarrak eta, Amaiur'en bezela, defenditu izan ez ba'lira, naparrak sukalde epelean gelditu izan ba'lira... zer?

Edestian atzera ta atzera egiñaz ez dugu besterik ikusten: makilkadaz españiar egin nai gindutenean aurkako gure defentsa armatua baiño. Azkenik, orra Orreaga, Ementxe, askatasunaren aldeko burrukan azaltzen gera lenbiziko aldiz Kondairatuak.

Bai, jarei bizi-naiak eraman ginduan eta garamazki burru-kara. Betiko urduritasunean eta defentsiban bizi izan gera eta bizi gera, gure Lege Zarra'ri ez bait-diogu ukorik egin. Libre ta lokabe jαιο giñanok, gure burua gobernatzen jarei ta lokabe jarraitu nai dugula esan-nai bait-digu Foruak.

Bizi-nai onek beste garrantzizko izkillua bear zuan: EUSKERARENA. Eta oraindik ere auxe da peit zaiguna. Nazio gerala adierazten digun gai edo tresna bakarra, euskera-aren izkillua.

Ondo dakigu, bai!, gu erdaldunduz apurtu ta suntsitu nai ginduztela ta gaituztela. Erri edo nazio bezela aienarazi. Ontaz ez gera danok konturatu gure Errian. Kultur-bide bakarra (eta ondorioz, askatasun-bidea) erdera zalakoan euskera zapuztu eta erderari atea zabalik uzten urtetan eta urtetan alegindu ziran gure jende ikasiak batez ere. Erdaldun izanik ere erri-jabe izan giñezkela askok pentsatzen zuten eta dute. Etzuten ez dute gure izaera ezagutzen, ez aztertzen, ez sakontzen.

Gure gaurko abertzaletasunaren elburua euskal nazioaren berreraikitzea da. Ta ontarako euskal anima nazionala da berreraiki bearrekoa.

Euskal nazioa libre izango da, Erriak bere sortzetiko anima berreraikia ikusten duanean, BIZIRIK dagoala oartzen digu-nean.

Iru urrats: Gure Erria'ren berreraikuntzarako lenengo urratsa Erria'ren, euskera bitartez, euskalduntzean datza.

Bigarrena: Kontzientzi nazionalaren lorpenean.

Iugarrena: Beregaintasunean, independentzian alegia.

Guri dagokigu, itzez baiño egitez bizi-nai orri eustea, jarraitzea. Pake-bidez baiñan kemenez.

Egigain



ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ADIÑEKO BIDAI BATEN IBILALDIA



Bizkai'ko adiñeko taldea. Aldundiak eratutako ibillaldia. (Fado Folklore ikustera).

Bidai ona eta ezkerterekoa Bizkai'ko Aldundia'k beste erriak ezagutzeko emoten daukun aukera ta laguntza adiñekoak garenai.

Ezker ona, ezere bereizte barik eginda dagozelako, eta gizartearen ezberdintasunari aukera aundia emoten dautsoelako, nortasun arloan obeto konpondu gaitez, lotsagizun aundiz, danon izaeraren ardurak zainduta, oster orretan ondo baiño obeto ikusten dana.

Bidai onen izaera, orain urte bi, Europa'ren Beko-Errietara egin gendun oster ederretatik ezagutzen gendun.

Eta beti lez, Lourdes nire emaztea arduratu zan eskabideak betetzeko.

Non agertu ziran gure izen abizenak sarituak izan zirala, Portugal, txangolari ikusteko !.

Orrela, Loraila'ren 9'an goizeko zortziak eta amar ziranean, Donostiko berebil-bus batera igon gendun, Portugal'eko Kaskais uri politara joateko.

Berebil-bus orren Xabier eramaille-ona, Euskalduna izan zan, Kiputza eta jatorra bera, eta txantxetarako zale-tasun aundikoa.

Eta gure taldearen gidari-zuzentzaille Estefania izan zan, Galizia'koa (Lugo) bera.

Berak adi-eraziko azalpenaren xeetasunak gozo ta argi agertzen ziran gure belarrietara. Eta ondo baiño obeto jakin eban zelan jokatu gulako talde baten.

Gure taldea, adiskidetasun aundi baten agertu zan, alai ta gogaldi onean. Danak irripartsu, bear ebanari laguntza ezkeintzen eta abeslari ta gordinkeriak esanaz alaitsuak.

Estefania'ren antolamenduzko aolkuetaren bidez, bus'ean artu genduzan leenengo ezar-lekuak, bidai guztian gordetzeko alegindu euskun.

Bai, mai-biribillaren jar-lekuetan be, beren ardurak obeto zaintzeko, eta olan bete genduzan ezere arazorik gabe.

Baiña bidai onetan, nai-ta artu-emonak ezberkoitasunezkoak izan gura nai-ez, beti alkartzen zara zugaz antz geiago daukenakaz.

Eta olan alkartu giñan Etxegarai ta Etxebarria'tar Maite eta beren senar Gaston eta Olazaran'tar Jesus, Urduliz'en bizi diranak; Biruete ta Aurtentxe'tar Jose Ramon eta bere emazte Redondo ta Martinez'tar Mari Paz, Bilbao'n bizi diranak; Arregi ta Astarloa'tar Mari Karmen eta bere senar Aizpuru eta Erauzkin'tar Jon, Bilbao'n bizi diranak; Karbon'tar Andres eta Mariano Santutxu'n bizi diranak; Zarraga'tar Isidro ta bere emazte Olabarr'i tar Asun, Basauri'n bizi diranak; eta Marisa ta bere senarra Santutxun bizi diranak.

Elkarte polita egin gendun, danak bardin antzean benetakoak agertu giñalako alde batetik, eta iñungo zalantza gabekoak bestetik, beste guztiak be, or inguru beten agertuta.

Bilbao'tik Kaskais'era ia milla kilometru dagoz, bitarte aundia benetan, baiña erreza da ordu-bitik ordu bira, ordu erdian geratu ezker.

Bidaia, ez zan guztiz ondo asi, lau edo bost 24 zenbakiko geltokian itxaroteko idatzita euki gendulako, eta besteak 11'garrean. Orregaitik 10 minutu beranduago urten gendun.

10'k eta ogei minututan, Palentzia'ko lurraldean geratu giñan, Kintana del Puente erritxoan gosaritzeko, eta 11'etan Salamanka'ranta urten gendun.

12'ak amar minutu gutxiagotan, guardia-zibillak geratu ginduezan eta bertan egon giñan ordu bete, ezere ganora barik.

Ordu-biak amabost minutu gutxiagotan Salamanka'ra eldu giñan, eta bertan bazkaldu gendun.

Bidai onetan, neska arduradunak ez eban berbarik egin Salamanka'ra eldu arte, eta bide guztian, or joan gintzan musika edo eresiaren, doñu-baragarri-bat entzuten. Kontu apur-bat euki bear leukie arlo orretan.

Bus'aren eramalleak eta txangolarien gidari-arduraduna'k aldatuta, aurrera egin gendun ordularia ordu bat atzeratuta.

Portugal'era, Izar'en menditik Fuentes de Oñoro'tik sartu giñan, eta Kaskais'en "Ciudadela ostatura" 8'terdietan eldu giñan.

Afaltzera joanda, leenengo, katillu-bete porrusalda (sopa verde) atara euskun. Gozo egon zan, baiña bazkalafari guztietan leenengo artu bear gendun janaria itxura ezberdiñetan bera izan zan. Gero arraña, patata-egosi, karrakatxa edo azuntz (espinacas), perretxiko'en zuku

edo saltseagaz apainduta. Gaiñean, sagar ta madari ego-
siak eta igali-naste goso bat albimeratuta. Janari guztiak
ondo egon ziran.

10 ASTELEENA:

Jan-gela, goizeko zazpirak lauren gutzietatik zabaltzen
eben. Lourdes ta ni zortzi terdietan joan giñan, eta an
danetatik gura gendun beste egon zan jateko.

Bederatzi terdietan urten gendun bus`ean Sintra`ran-
tza.

Itsas-bazterretik joanda, Estoril`en, berebillak laster-
ketetako itzulian ibiltzen diran tokia ikusi gendun.

Ikusi genduzan erritxoetan, alkar-ondoan banakako
etxeetan bizi dira, eta orren esangura, nortasun aundikoak
izatea esan gura ba-dau, euren etxe-gintzako lanean alde-
rantziz beste gauza bat erakusten dabe, tellatuan aterpe-
bako etxeak eta oso motel eginda dagozelako. Balekite
ango egu-giroagaitik izatea.

Beste gauza eder bat daukie, eta leku guztietan ikusiko
genduna, jauretxetatik asi-ta: Buztin-gintzan, ondo mar-
goztutako artzabalak (baldosas pintadas) egiten dabezala.
Mauritarren jakintzatik artutako oitura ?

Dana dala, Sintra, U.N.E.S.K.O`gaitik Mundu`ko
yarauntzi-lez izendatuta dago (patrimonio Mundial).

Sintra`ko jendartea ona da, baiña badaukiez bai ondo
ikasitako iruzurkeriak dirua lortzeko.

Gero, erregeen-jauretxea ikustera joan da, ainbat gela-
eder ikusi genduzan: Lepazailu`en (cisnes) gelatik asi-ta,
laparxori edo Suge-txori`en (Urraka) gela, goiko aldean
erregiña`ren andere-lagunak adierazian (simbolizando)
136 Laparxori margoztuta daukazenak; erregeen lo-gela;
Julio Zesar`en gela; Bas-auntzen gela, eta gela-goian,
bas-auntz bakoizatik eskegita 72 armari margoztuta euki
ebana; eta abar.

Arabiar`en gela ederrean be egon giñan, erdian iturri
bat eukana, eta beren onura, inguruan bazkaltzen egoten
ziranai, eskuak garbitzekoa izan zan.

Sukaldean be egon giñan, eta jakin eben bai, zelango
antolamenduzko apainketak egin bear ziran, askorentzat
janari ederrak egokitzeke.

Tximini aundi bi daukaz, kanpotik ederto ikusten diran-
nak, su-kaldi guztien keiak atarateko. Nafarroan, Beraste-
gi`ko erritxoan dago baserri bat, gela erdiko-zelaian lauki
aundi barru baten sua egiten dan lekua dana, eta goi-
aldea, lauki`en neurri bardiñetik asi-ta, biribillean, gero ta
estuago doana, goiko zilloa, oizko tximini`en antzean
amaitu arte.

Ordubaterdietan bazkaltzera, eta lauretan “Kabo de
Roka” ta “Boka de infierno” ikustera joan giñan.

Itsas-ertzeko toki onek, ez dauka garrantzi aundirik,
daukazan itsas-argi edo argi-dorrea, bas-eliza txikerra,
itsas-ertzean daukan zilloa eta bertan egoten dan azoka,
guretzat oso ezagunak diralako. Baiña badauka bai,
garrantzi aundiko gauza bat: Europa`ren Mendebaleko
azken muturra dala.

Gero Kaskais ikustera joan giñan, eta andrak saltokiko
dendatetik ibili ziran artean, gu kai-alde edo portua ikus-
ten ibili giñan, eta an, iñoz ikusi ez dodazan ainbat arran-



Fado-Folklore Lisboa`n.

tzaleen kaiolak, otarrain (langosta), txangurru (centollo),
ezkarrak eta nekora`ren arrantzarako ikusi nebazan.

Arrantzal-anaitegien sal-erosleko lekura joan giñan,
eta an ikusi genduzan zer artzen daben itsasotik: Olaga-
rro, Tajo errekaen ur-gezan dagozan 35-40 kiloko
Julio`ak, Berdelak, txitxarroak, zigalak, eta ainbat arrain-
mota ezberdiñ.

Gure arrantzaleen ontziak, obeto zainduta dagoz, eta
or, utzitasun edo alpertasun bat ikusi neban.

Bideetan, berebillak bizkortasun aundiz eta ugaritasun
aundian dabiz, berebil bakoitzean bat bakarrik joanda.

Orrek, gure antzera esan-gura dauana, minutu bateri,
azkeneko txakurtxikiraiño atararte dabizela.

Balekite, itsas-ontziaren egoera, orregaitik izatea.

Beti-lez, zortzi-terdietan afaldu gendun, eta onarte
danon-arteko lotsagizun aundiz ibili ba-giñan, eta giñan
muga ori apurtzen eta bakoitza bere izaeran agertzen.

Asierako alkar-izketak, beti asten dira, nor-berak aitu-
ten dabezan gauza garrantzizko zeatzasunetatik, eta gure
maian leen agertu zana, gure Euskalerrriak daukazan
arazo-politikoetatik.

Aukera euki neban, eta erdi-ugarte onen edestitik asi
nintzan gauza zeatzak azalduten, ia jateko denbora guz-
tian, ardura aundiz artzen ebezalako nire berrien xeetasu-
nak. Gero, elkartean arteko gogoetan agertzen jakien itau-
nari, erantzunak emon bear nebazan, baiña pozik egin
neban guztiori.

Emaztea asarratu egiten jatan, baiña....., zer egingo
neutson nik ba !.

Danok, neurritz ibili giñan, eta afaria amaituta, Liza-
rra`koa dan Gaston ta Olazaran`tar Jesus asi jakun abestu-
ten.

Abestia, ondo aldi-bateratuta urten ebalako, Zarra-
ga`tar Isidro`k beren lekutik Jesus`eri esan eutson, beste
bat abesteko, eta Maite`k, Jesus`en emaztearen erantzuna:
“Berotu ! berotu !” eta gero ikusiko dozue. Gure maian,
arrigarritasunezko abesbatza agertu zan.

11 ASTEARTEA:

Goizeko 6`1/2`etan jagi giñan, 7`retan goizaldu, eta
8`retan Lisboa`rantza urten gendun.



Gorka Deuna. Gotor-lekua. Aurrean Lisboa osoa.

Egun eguzkitsu ta oso argiak euki genduzan bidaieko egun guztietan, eta egu-giro ezinbesteko onak

Lisboa`n, Rodrigez`tar Amalia`ren (fadista) ospian eginda dagon lorategi aurrean ordu erdian geratu giñan, argazkiak atarateko eta inguru-polita ikusteko.

Estefania`k, lapur ugari egoten zirala esan euskun, baiña guri ez jakun olangorik sortu.

Bai-ta, Lisboa`tik egunero eten-barik, zelan igaroten diran bi-miloi giza seme/alabak ikusketari. Arrigarria.

Bigarren geldiketa, Rozio`ko enparantza aundian egin gendun, urdu-bat ta erdiko askatasunagaz, eta ango ikusketak egiteko batera urten ba-gendun, banandu gintzazan.

Gu bere goiko aldean dagon San Jorje gaztelu-errira joan giñan, Lisboa bere edertasun guztian ikusteko eta argazkiak atarateko.

Leku polita benetan, bertatik Lisboa osoa ikusten zala-ko, euki gendun eguraldi eguzkitsuagaz.

Tajo ibaiak, bere urak itsasoratu egiten dauzan ibai-ondo edo ao`an oso zabala da, galtzuaren itsasoa deitzen dautsoena, eta beren gaiñean zubi aundi-bi dagoz: Belen`en, Zalazar`en zuba 2 kilometru ta erdi daukazenak, eta Basko de Gama`ren zuba 16 kilometru ta erdi daukazenak.

Belen`eko zubien goiko aldetik berebillak dabiz, eta be-aldean trenak.

Belen`en, Jeronimo`en lekaidetxea ikustera joan giñan, eta ezin leiz sinistu an eginda dagozan eder-lanak ikusi ezik.

Itsas-ertzean dagon dorrea eta egazkiñaren argazkiak atara eta gure ostal-etxera joan giñan bazkaltzera.

Arratsaldean Lourdes kaskais`era bajatu zan Mari Karmen, Mari Paz, Jon eta Jose Ramon`egaz erosketak egiteko eta ni gelan geratu nintzan irakurten.

Afaria amaituta danok asi giñan kantari eta ostean arri-garrizko jaia egin zan jantza-gelan.

12 ASTEAZKENA:

8`retan urten gendun ostatutik Nazaret`eko errira. Eritxo onek ez dauka gauza aundirik ikusteko, Eleiz-

poli bat ez ezik eta be aldeko ondartzan inguratutako sarrera polita mutur bietan itsas-argien dorrea bakoitzak eukin da, barru aldean itsas-untziak gordetzeko.

Gu goi-aldean egon giñan, eta an egon ziran andrak zazpi gonakaz egon ziran jantzita, gizonak itsasora urte-tan ebenean zazpi egunerako joaten ziralako, eta eurak egun bakotza igaro egiten ebenean gona bat kentzen eben, azkeneko gona egalunezkoa izan da gizonari oparitzeko.

Lanperna`k edo itsas-piru`ak (percebes) eta igali sikuak saltzen ebazan. Ondo dakie dirua zelan atara.

Nazaret`etik amarterdian urten gendun Batalla`rantza, eta erri onetara amaikaterdian eldu giñan. Bertan, Santa Maria de la Bitoria`ko Gotzai-Eliza ederra ikusi gendun, I Juan eta bere emazte Lankaster`tar Felipa`k egiña.

12`ak eta laurenetan Fatima`ko bidea artu gendun, eta bidean San Mames`eko erria uste dot zala, Gomez ta Beira`tar Antonio`ren kupeldegi edo ardandegian sartu giñan, bertan Oporto`ko ardo-zuria, ardo-baltza eta Oporto`ko moskatela 1.883`ko ixurgai (licor) zana.

Geienak iru botella erosi eta kartoizko boltzatan eroan genduzan.

Fatima`ra ordu-bietan eldu giñan eta "Kinta du Castelinho`n bazkaldu gendun eta iruretan urten Fatima ikusteko.

Lau-terdian Mesa Santua ospatu eben Portugeses, eta Lourdes`en antzera ainbat kandela erretzen dabez txikerrenak 0`40 txakurtzikitik asi-ta ez dakit zenbateraiño.

Eliz-Nausiaren aurreko zabalgunean beste Eliz-Nausi bat asi dira egiten lenagokoa baiño aundiagoa izango dana.

12`aren gabaerdtik 13`ko eguna argituarte ospatzen dabe agerpenaren jai aundiena. Nik telebistatik ikusi neban eta arrigarizko jaia ospatzen dabe, aurreko zabalgunean jende geiago sartu ezinik.

6`retan urten gendun eta bidean goazela, Gomez ta Beira`tar Antonio`ren upeltegiko sarreran emon euskuen txartela. Erdia erosketak egiterakoan emon bear gendun eta beste erdiagaz, zenbaki bat euki ebana, Estefania`ri emon eutsoen ikusari-berezia zozkatu zan, eta 1.047`ko zenbakia izan zan saritua urten ebana. 8`retan gure ostatura eldu eta zortziterdian afaltzera joan giñan.

Afari-berezia euki gendun, eta amaitu genduzan abestuten asi giñan eta ostean jantza-gelan izugarrizko jantzaldia. Ni beste iru lagunakaz Andres, Mariano ta Bizente`gaz, kartetako jokuan ibili giñan. Denbora ondo neurtu gendun eta bai galdu-be bai, gaiñera Lourdes asarratu jatan.

13 EGUENA:

Seiterdian jagi giñan, zazpi-terdian gosaria jan-da zortziretan Keluz`era joateko.

Emen Potugal`eko erregeen jauretzea ikusi gendun, arrigarizkoa dana, XVIII`n. gizaldian arrian eginda daukazan eder-lanakaitik.

Dorre bi amaitubarik dagoz, eta ez da miraria.

Inguruan daukazan lurak 8.000 ektarea daukaz.

12`etan urten gendun, ordu-batetan bazkaltzeko.

Iurak lauren gitziagotan Setubal-Sesinbra`rantza urten gendun, eta laurak lauren gitxiagotan Sierra da Rabi`da`ren goiko aldean egon giñan, Setubal eta daukan 17 kilometruzko beso luzea Sado ibaiaren irten-lekuan ikus-teko.

Bertan zabalean eta banan-banan dagozan bas-eliza edo ermita txikerrak, bakotzean ermita-zai bat bakarrik eukiten ebana ikusita, berantza joan giñan.

Sesinbra`ra bostetan eldu giñan. Erri aundia da eta Kai polita dauka, baiña guk eroan genduzan asmoak, arrain erregosiak eta maskulu erreak jateko, Estefania`k esan euskun lez, beste ordu batzuk dira egokienak ango zalegarritasuna arrapatzeko, egu-erdia eta arratsaldeko zortziretatik aurrera, eurak asten diralako ordu orretan arrain ta maskuluak erretan.

Sesinbra`tik sei-terdian urten gendun zortziretan afaltzeko, eta afal-ostean Euskerazko abestiak. Oso Euskal usai-goza emoten dautso taldeari. Gaiñera, Isidro`ren urte eguna egun bat ariñago ospatzen ba-dogu.

14 BARIKUA:

Zazpi-terdian jagi giñan zortziretan gosaltzeko, eta goiz guztia aske euki gendun lez, erosketak egitera joan giñan.

Arratsaldeko iruterdian urten gendun eta ostera labur-bat egin gendun jai nagusia gabaz euki gendulako.

Zazpiterdian afaldu gendun gero Lisboa`ra joateko eta an "FADO – FLOLKLORE" a ikus-entzuteko.

Artean, Estefania`k Lisboa`an dagoan arrigarrizko Kasino`a ikustera eroan genduzan.

Sartu gintzazanean, danon arteko diru apur bat batu gendun makiñatan jokatzeko, eta txanponagaitik aldatuta jokoan asi giñan.

Baiña ez genduelako jakin olgetan, parean egon zan Txina bateri eskatu neutson laguntza eta diru guztiak galdu orduko, berari emon neutsozan azkeneko bost txanponak, bai mosu bi be agurtuaz batera.

Fado – Folklorea bederatzi-terdian asi zan, eta danok ezarrita bakoitzak iru edari artzeko aukera euki gendun.

FADO, Portugal`eko erritarren-abestia esan gura dau eta FOLKLORE jantzaldietan errien-jakintza.

Iñok ez eban ulertzen, baiña a-ta guzti batzuk disketak erosi ebazan eurak izenpetuta.

Jantzak, gureakaz antz aundia daukie, bai-ta euren jantzietan be.

Amaitu ebenean Atleti ta Realaren goratzarre ereserkiak abestu genduzan eta tira-bira apur-bat urten eban, baiña atsegingarria izan zan.

Estoril`era joan giñan, eta an gabeko argazkiak atara genduzan ordu erdi baten gitxi gora-beran, zugatz guztiak argi txikerrakaz beterik egon ziranen artean.

15 LARUNBATA:

Gosaria artuta bederatzi ta laurenetan Obidos`erantza urten gendun, eta an, XVI`n gizaldian iru kilometruan egindako ur-bidea ikusi-ta San Juan Bautista eta Santa



Lekaide Jeronimo`tarren etxea. Monastegia ta Basilika (Klaustroa).

Maria eleizak XIV ta XII`n gizaldikoak eta benetan ederak diranak, ikustera joan giñan.

Erriaren goi-aldeko gazteluan egonda gero berantza joan gintzanean, daukazan kale-estu guztietatik ibili giñan, eginda dagozan kaleak, ainbat gizabide-ezberdiñek eginda dagozelako.

Obidos txikerra baiña polita da, oso zaarra bera, eta gaiñera antziñatik datozaan ao-jakintzak naaztu ta alkartu egiten dan tokia da, gaurko egunean, Portugal`eko bitxi garrantzitzuenetariko bat da.

Portugal`eko kale-egal guztiak eta giza/semi guztiak oiñez ibili bear daben leku guztietatik, arri-soltuakaz margotuta lez eginda dagoz.

Lenengo aitz-ondarra botaten dabe azpian bost zentimetroko lodieran eta gaiñean arrobietatik ataratako beste ainbestean lur-arri txikerrakaz naasia, eta gaiñean leenengoko aitz-ondarra beste ainbestean. Eta orren gaiñean ipinten dabez arri-txiker orreik marrazki politak eginda.

Gizon asko daukiez lanean arri-arlo orretan.

16 IGANDEA:

Goizeko seiretan jagi giñan, seirak eta ogeierako eroan genduzan bide-kutzak eta zorroak bus`ean egokitzeke, gero gosaria artu eta zazpiretan ariñagoko domekan egin gendun bidaia, baiña alderantziz.

Bilbao`ra, arratsaldeko zortzi-terdian eldu giñan, Zorrontza`ra bederatzi ta ogei minututan.

ONDORIOA:

Ezker onak emotekoa da Euskadi`ren jaurkintzari asmakizun onengaitik, adiñeko erritarren bizitza alaitu egiten daualako, eta zartzaroaren nekea bizkortu, argituaz batera.

Nire emazte Barroeta`tar Lourdes`ek eta nik, poz aundiagaz egin dogu bidai eder au.

Atutxa`tar Paul
Zornotza`n 2.004`an Orrillaren 26`an

BIZKAIEREAREN AURKAKO ZENTSURA EUSKALDUNA

ZER aldizkarian ezeze, beste egunkari eta aldizkarietan be eritxi artikulua eta txitean-pitean bialdu daroadaz, argitaratu daiezan. Aspaldi-aspaldian artu neban erabagia artikulua eta bizkaieraz idaztea, bizkaieraz idatzita argitaratu daiezan, atan be. Esan bear dot, barrez, orain arte oztopo andi barik izan dirala onartu eta argitaratuak euron an-or emenka. Inoz idaztiotan zitelarena egin badot be, egundo ez dot erabili era zatarrrik gura izan dodana egokiro, neurri eta eran aditzen emoteko.

Au alan dala eta, jorrailean argitaratu eusten azken eritxi artikulua GARA eta BERRIA egunkariak. Argitaratu bai, baina BERRIA egunkariak ez nik idatzitako eran, bizkaieraz, aren itzulpena eginda baino, batuaz, argitaratu be. Deitu neutsen, deitu be, ea zer dala eta ori itzulpenori, ori eginda artikulua nortasun barik, kolorga lotu zana. Bertako "izkuntza zuzendariaren" erabagia izan ei zan, aurki. Urrengoan olangorik ez egiteko eskatu neutsen eta erantzun otza artu neban.

Alan bada, maiatzaren 10ean, gauzak bide onera etorrita egongo ziralakoan, beerago irakurriko dozue bialdu neban argitaratua izan eiten. Baina, itzulpenik barrian ez egiteko eta egoan moduan argitaratuteko eskatuta. Oraingoan baina, ez BERRIAK ezta GARAK be ez dabe artikulua argitaratu. Murtik esan be ez. Ain okerra da antxe eskatu neban? Ala bizkaieraz idatzita dagoalako ez dabe argitaratu? Baiezekoan nago. Arrazoi biokaitik izan dalakoa daukat. Susmo txarra artuta nabil. Ez ete da izan bizkaiera bein betiko baztertuteko zentsura politiko-ideologikoa or atzean ostuta dagoana? Kontu au guztiau naturalidade osoz ikusi eta erabili bearrean, edabide batzuetako komisario linguistikoen ebatzien pentzudan gabilz mendebaldeko euskeradunok, aurki.


Ez daukagu bearleku makala bizkaieradun koitaduok geurea diglosia bikotx eskergatik onik atarateko. Aaleko aaleginak egin bearko doguz euskal komisario linguistikoen atzaparretatik askatu eta bizirik irauteko, geurean, etxean. Baina, orixe berberorixe da izan komundade aborigenen zoritxarra: norberaren etxean arrotz!

Aor, urrengo dozue bada, artikulua onen zergaitia edo pekatua:

ZUEK DOZUE BERBEA

Igazko zezeilaren 20tik Bizkaiko komundade euskaldunaren lagun asko umezurtz gagoz. Umezurtz itxi ginduezan. Izan be, 2002ko maiatzaren 11an apal baina itxaropentsu jaio zana, indarraren arrazoa dala eta, il egin euskuen igaz. Euskaldunon Egunkariak egunero ekarten eban Bizkaia geigarria betiko ostu jakun. Alantxe da? Betiko ostu jaku? Eta alan bada, ezin batu ete leitekez, barrian, orduan alkartu ziran indarrak galdutako proiektu orreri biztu eragiteko? Nire uste apalean, Bizkaiko lurraldeko komundade euskaldunarentzako mesederako proiektua izan zan a, eta ezelan be ez kaltegarria, inondik inora be. Gure geure berbeta nortasunaren zuztarretan sendotu eta sakonduten aaleginduten zan eta proiektu nazionalaren lagungarri zein osogarri izateko bidean egoan. Orain, ostera, umezurtz segiduten dogula emoten deust. Noz artean?

Iniaki MARTIARTU
BAKIO



Larrabetzu'ko Salbador
Bateleizan.



Mungia'ko San Anton
Bateleizan.



Mungia'ko Magdalena
deunaren Bateleizan.

LEIO BISIGOTIKOAK (800N. URTEKOAK)

*Asturias'tik etorriak
(Ikusi 14n. orr.)*

BARROKO-ONDOREN GAUR-ARTE

Barrokoaren ondoren margolaritzak beera-aldi handia dauka eta oneik dira agertzen diran ekinbideak: Neoklasikua arauetara bihurtzeko, erromantizismo ameslari ta sentikorra, inpresio-zaleak margo-moltzoak egiteko, eta onein ondoren bide bi agertzen dira oso ezberdiak: irudizaleena betiko bideari jarraitzeko eta abstraktoa edo ekspresionismo-zaletasuna irudiak alboratzeko, eta azkenengo onek kubo-zaleen bidera daroa, baiña Europa'ko guda amaitzen danean bide bi zabaltzen dira, bata goibel eta emen dadaismoa, eta bestea bizi-bizi eta emen faubismoa, ultraismoa, futurismoa eta banguardismoa eta azkenean, dana dator aspaldiko surrealismora. Bide oneitan, baten edo batzutan kokatuko dira margolariak.

Neoklasikuak

Txirotasuna daroe barruan barroko-zaleen apaingarri larregiak alboratu eta betiko arauak betetera datozen oneik. Etxegintzan etxe ospetsu batzuk egiten dabez eta burdin-lan ederrak eta aundiak be bai, esaterako Tour Eiffel eta iturriak nonai, baiña euren margo-lana oso txiroa da.

Esan lei, une onetan gizakia pentsalari geratzen dala bide barri batzuk asmatzen, eta asmatu be egingo dauz.

Erromantikuak

Jokabide onetan batzuk aitatuko doguz: Ingres, Delacroix eta nagusi dan Geri Cault. Ikuspegiak agertzen dira onak Camille Carot, Huet eta Troyon, baiña T. Rousseau barriro klasikura doa.

Beljika'n apur bat Italia'n gitxi eta Olandan ikuspegiak ugari. Ingalaterra'n ostera, argazki-zale dira eta Alemania'n mistikara jokerea sartzen jake Nazaret'arrak buru dirala.

Realistak edo gauzatiak

Urreroko realistak datoz, Millet aurrerengo dala. Onek eguneroko bizitzeari begiratzen dautso, gogoratu, esaterako beronen "Angelus".

Frantzia'n Daumier, gizarte-arazoak agertzen ona, Rikard argazkiak margotzen, Monticelli eta Carrand barriro ikuspegiak margotzen agertzen jakuz.

Inpresiozaleak

XIX gizaldiaren azkenean agertzen da jokabide au. Onein ustez mundu onetan dana dago joanean eta margolariak une bat artzen dau, ori da beronen inpresioa. Eta jokabide orrek poztu ta bete egiten dau margolari inpresiozalea.



Monet. Eguzki-sartzea inpresiozaleen asierea.

Margolari onein lanak zeaztugabeak dirala dirudi, margo-moltzoen antza dauke, orregaitik urriñetik ikusi bear dira.

Ekinbide naikoa bereziak daukez: Bata margolari barriena eta bestea bide barri oneik sendotu eta eskola barria askori zabaltzen dautsen bidea.

Asieran ez ziran izan onartuak. Jokabide oneri asiera emon eutsona "Eguzkia berantza. Inpresioa" margolana izan zan eta ortik artu eban 1874n. urtean. Manet da auren artean ona eta Van Gogh ospetsua be emen sartzen da.

Lenengo ekiñaldian iru era dagoz: Lenengoa Simeon Deunaren eskolea, oneik aurrelari batzuk dira, bigarrena Suiza'ko akademia eta emen Zezanne daukagu eta laster datoz inpresiozale barriak, puntillistak deritzenak puntuakaz lez margotzen dabelako eta emen Regoyos, Sorolla eta Gimeno.

Ekspresiozaleak



Monet. Bedartzan berausten.

MARGOLARITZA



Kurutzea. Salvador Dali.

Irudidun edo figuratiboa izan da margolaritza orain artean, baiña ba-dirudi irudi guztiak eta era guztietara agertuak dirala eta orain irudi bageko margolaritza asmatzen dabe margolariak. Zer izango ete da irudi gabeko margolaritza au? Batzuk geometria sartuko dabe euren lanetara eta onei kubozaleak esango jake.

1914n. urteko guda amaitu zanean bide bi zabaldu ziran: ezezkorrera eta onein artean dagoz dadais-tak, margotzeko gogota indar barik berba

egiteko “da-da” esaten dauanaren antzera, eta bestetik baiezkorrak, itxaropentsu agertzen diranak eta emen dagoz ultraistak, futuristak, banguardistak eta faubistak.

Onein artean Matisse gero kubozale bihurtuko dana.

Aitatzekoak dira Iturrino, Zuloaga, Gris, Blanchard, Miro eta sarritan zalantzak izan arren Dali be bai. Au azkenean surrealista bihurtuko jaku. Ikusi onen Kristo gurutzekoa.

Pablo Ruiz Pikasso

Ospe aundiko margolaria dogu, Velazquez'en bestean ezaguna.

Asieran inpresiozale izan zan, Van Gogh'eri jarrituz, gero ezezkor biurtu zan eta zori txarreko notiñak margotzen ebazan, esaterako argalak, itsuak, eskekoak eta kale-

musikalariak. Gero margo sakonetara sartu zan bere larrosa-aldian Apolinaire'ren lagun aundia zanean. Baiña kubozale biurtzen jaku, oso-osoan irudien aurka joan bagerik, geroago realista da eta lotan dagozan ameslariak, onirikoak, margozen dauz, tauromakia be bai eta aldi one-tan Gernika margotzen dau España'ko Erkalak eskatuta eta Paris'en. Irudi eder au Ameriketara eroan eben España'n diktadura dagoan artean an egon daiten eta gero Madrid'era ekarri dabe, baiña, eskatu arren ez dautsoe emon gura Euskadi'ri edo Gernika'ri.

Guda-ostean bizi poza agertzen dau eta lan asko ta onak egin, larogetak urtetakoa zala be bai.

Baiña irudizaleak edo figuratiboak be euren bidean aurrera egin eben, esaterako Juan Etxebarria'k, Aurelio Arteta'k, Alberto Arrue'k, Ebaristo Balle'k, Rafael Zabaleta'k, Daniel Vazquez'ek, Cossio'k...

Goia

Aldakuntza guzti onein inguruan dabil asieratik Goia margolaria, guztiai bideak idegiten eta guztiak onartzen.

Zaragoza'ko Fuentedetodos errian jaio zan eta Zaragoza'n bertan, eskolapioen ikastetxean ikasi eban, margotzen be bai, Jose Lazan irakasle ebala.

Amazazpi urtekoa zala Madrid'era joan zan sariketa batera, baiña saria galdu egin eban eta Italia'ra joan zan. Erroma'n egon ondoren Parma'ra abiatu zan eta emen bai atera eban saria.

Ogeta bost urtekoa zala barriro bere etxera etorri zan eta Zaragoza'ko Pilar eleizan lan batzuk emon eutsoezan eta freskoz egin be bai. Gero Aula Dei kartuja'n egin ebazan beste lan batzuk ormak apaintzeko. Madrid'era joan zan barriro eta eun margotuetan edo tapizetan egin eban lan.

Margo-lan asko eta ederrak dira bereak, Sorgiñak iruditzen be bai.

OLAZAR'tar Martin'ek



El Greko: Teledo'n: Ordaz kondearen illetea.



Picasso. Gernika Sutan.

TOKI-IZENAK ETA ABIZENAK

(2N. MOLTZOA)

“Euskerazaintza” aldizkarian XLIX zenbakian argitaratu doguz toki-izenak eta abizenak, 1.º moltzoa, guztiz irureun bat eta gure irakurleen artean arreta aundiaz artuak izan dira. Baiña irureun ez dira ezer ogeta amar milla baiño geiago doguzenean. Orregaitik bigarren moltzo au argitaratzea erabagi dogu.

Zergaitik izan ete dira ain onartuak?

Ona emen ikusten dodazen zio batzuk: Geure jatorria maite dogulako, or gaur galduta dagozan izen asko agertzen diralako, eta ez izenak bakarrik, atzizkiak be asko eta asko gaur galdutzat daukaguzanak. Euskera ikasteko eta orretan sakontzeko bidea dogu ba au. Esaterako, gaur “uria” izena erderazko “villa” esateko baiño ez dogu erabilten, baiña antxiñako euskeran zerbait geiago be adierazten eban: “Uriarte” izeneko etxea ez dago errien artean, “Uribitarte” ez dago erri biren artean, “Uribarrena” ez dago erri baten barrenean, edo Urigoien, Uribarri, Urizar, Urioste... Bardin esan bear “zar” itzi orreri begira, eta abar.

Irakurleen egarri ori asetzeko, bejoa moltzo barri au, bigarrena, eta abizen bakotxean itzaren jatorria eta non edo noz lenengoz agertzen dan azalduko dogu, edo etxea non dagon.



Oarra: Oraintsu itaundu dauste “Oyorta” euren etxean izenak zer esan nai dauan.

Itz ori ez dot aurkitu abizenen artean, baiña nire ustez auxe da jatorria: “Goi-Gorta”. Bean egoan etxea, goian abereak eukiteko zelaia edo etxea, gorrea edo kortabaso: “Goi-Gorta/Goyorta”.



Abendaño: Erri bat dago Gasteiz ondoan eta abizena Jauntxuen artean agertzen da Arratia’n eta Elorrio’n. Batzuk Galiziatik etorria dala diñoe.

Arandanok dagozan tokia esan nai dau eta Azpeitian agertzen da 1353n. urtean.



Abrisketa: Abarizketa’ren laburpena da eta karraskak edo abalak dagozan tokia esan nai dau.

Basauri’n eta Arrigorriagan agertzen da. Lazkano’n 1618n. urtean.



Atxaga: Atxa dagon tokia esan nai dau, baiña izan daiteke Arizaga’ren laburpena eta au aritxa dagon lekua litzake.

Zumarraga’n daukagu 1478n. urtean.



Atxotegi: “Atso” emakume zarra izan ezkerro, atsoa bizi dan lekua litzake, Mitxelenak diñoanez. Lopez Mendizabal’ek “atxo” sasia dala diño.

Amoroto, Bergara ta Eibar’en agertzen da.



Atxukarro: “Atxu” sasia izanik eta “arro” aldapea, sasiak dagozan aldapan dagoan etxea litzake.

Berastegi’n agertzen da 1759n. urtean.



Atxuri: Atx zuria esan gura dau eta Bilbao’n dago izen orregaz auzo bat, Mungian be bai beste bat. Ubide’tik Gorbeia’ra bidea antzekoa dan “atxurdin” dago.

Bilbao’n agertzen da 1524’an.



Atxutegi edo **Atxotegi:** Emakume zarra bizi dan lekua, diño Mitxelenak, Lopez Mendizabal’ek, ostera, sasia dagon lekua.

Mungia eta Aulestia’n dago gaur baiña 1654n. urtean Bilbao’n agertu zan.



Ayesta: “aies” otea da eta izenak orduan otea dagon lekua adierazten dau.

Iruña’n agertzen 1713’an.

Olazar’tar Martin’ek

ESPETXEKO LAGUNAK

Nigaz espetxean egondako lagunik gogokoenak il ziran: Larrañaga'tar Jose Erramon, elorriotarra, mutil mazal eta borondate onekoa, Elorrio'ko eresbatzean klariñetea jotzen ebana; neu be musika-zalea izan naz beti eta elizan abestuteko solfeo apur bat irakatsi eustien, mutikotan, eta arexegaz Jose Erramon'egaz, birrikasi neban espetxean. Erretzaillea zan eta kebedarrik ez eukanean, lagunak emoten eutsoen lantzian zigarro bat eta, berak eukanean, lagunen artean bananduten eban eta ostera be erregarri bagarik geratuten zan.

Emilio Duñabeitia, Au be elorriotarra; mutil ona ta baketsua.

Erregegi'tar Julio, bergararra, biotz-beera ta apala; euren ama aittetuten ebanean, tamaltasunez beterik itz egiten eban. Gogo-gokokoa neban au.

Antonio Oñate, ezizenez Txantxiku, bergararra au be. Beti gogaldi onez eta poza sortuten eban lagun-arte.

Alustiza'tar Sebasten, Legazpikoa, mutil ona ta zintzoa. Guda-aurrean Ilintxa ezizenaz idazten eban euskeraz aldizkari ta izparringietan. Guda-ostean ezegaitik be ez eban idatzi gura izan.

Arantzamendi'tar Bittor, mungiarra, sen andiko mutila, Intxorta'ko gudaldi gogorretan talde-buru izan zana.

Poli Nabarro, Arratzu'koa, lagun ona baia irrittua ta minbera.

Kanuto Elorriaga, Larrauri'ko errotaria, baserritar ona ta gizon zintzoa.

Sotero Ormaetxe, baserritar sendoa ta borondate onekoa. Lobaren bategaz bizi zan eta neuk egiten neutsozan arentzako eskutitzak; Iñorentzat idazkiak egitea ez da atsegiña, baia mesede aundia egiten neutsan eta au, pozgarria izan.

Bizi ete-dira...? Anjel Teillera Urizarbarrena, Apata'koa, mutil ona ta zintzoa baia larregi makurtuten zan besteen esanetara.

Sagarna zeanuritarra, baserritar jatorra ta mutil ona. Ipiñazar, (onein bion izenakaz enaz gogoratuten) au be zeanuritarra. Eraiketen bat espetxean izaten zanean, abadeari lagunduten izaten zan eta alako egitada nazkagarri, anker baizen arbuigarriak biotza zirkindurik, iñogaz berba egiteko be adore barik egoten zan.

Zarautz'tar Blas, zarautztarra, ona ta irribarretsua, adarra jotzen zalea.

Barrena, beti eristen geuntzan abizenez eta ez dakit zelan eritxon. Gipuzkoarra zan, ez dakit zein erritakoa. Turutalaria; goizetan jagiteko ta arratsetan ixilduteko, turuta jotzen euskun. Batzuetan pasodobleren bat, beste batzuetan obabakoen bat. Yagi-Yagi edo geure abertzale-

tasuna biztuten euskun eresi aberkoien bat; mutil ixilla ta ona zan.

Abando'tar Karmelo, bilbotarra, mutil landua ta borondate onekoa.

Agirregabiria'tar Iñaki, Portugaleta'koa. Geugaz ikasi eban euskeraz. Bilbo'ko Euskelzale-Baskunaren irakaspide (método) bat zuzendu genduan, ixillean, eta lenengo ikaskizunaz betera, ekientxua itz-egiten asi zan eta arik eta sei illebetara polito egiten eban euskeraz. Abertzale zintzoetarikoa zan.

Juan Bengoa, mungiarra, mutil bena, landua ta abertzale jakintsua.

Pelix Arabiotorre, Arrankudiaga'koa, mutil bena ta zentzun andikoa.

Elorrio'ko Udal-idazkaria, gizon eldua; asko kikilduta egoan osasunik ezaz. Gogoko izaten ekion, lantzean bein, nigaz berba alditxu bat izatea.

Lusio Izagirre, Busturi'koa, mutil ixilla ta baketsua, Miranda'n uste dot, atxilotuta eukezan gudari taldekoa zan. Espaiñarrak zirean ala ez itaundu ei-utsen guztieri epaitukeran; eta guztiak erantzun eutsen ezetz: etzirala eurak espaiñarrak. Eta, eriotza-zigorra ezarri eutsen danari. Areitariko bat, Egileor, galdakaotarra, ereil egin eben erriko salakuntzak eukazalako. Izagirre'ri, eririk salakuntzarik ez eukanez, kendu egin eutsoen eriotza-zigorra. Enpaidueri ez dakit zer jazo ekioean.

Daniel Ibarrondo, Arrigoarriaga'koa, lagungiña ta ona. Ez izanez Kortxo.

Alako baten eldu zan lege bat, zigorraren erdia eginda eukenak, azkatasuna izango ebela, bakotxak bere erriko oneretxia izanez gero. Niretzat be, baiezkoa emon eutsen, eskuz, gure sendikoeri, erriko agintariak, baia, ziria sartu eustien ixillean. Espetxeke landolan ebillan atxillo-lagunak esan eustan: "No conviene que salga en libertad" bialdu daue iri eririk.

Tamaltasunez beterik eta illun geratu izan nintzan, ba, neure lagunak alde eta ni bertan geratu izan nintzanean. Baia, arik amabostera-edo, beste lege batek artu nenduan eta, errian ikusi nenduenean, arrituta geratu zirean areik, abertzalea nintzalako errian ikusi gura izan ez nenduen biotz-erkin eta zitalak.

Jainkoak beukoz bere zorionean il zireanak.

Bizi direanen barri izango baleu, asko poztuko nintzake, naiz-ta bat edo birena baiño izan ez.

Aurre-Apraiz'tar Balandin'ek
Aiengiz'tik

1091N.URTEAN MUNGIA'KO ELEIZAN

Fortunio II izan zan Armentia'ko azkenengo gotzaiña. 1065n.urtetik 1087n.urtera iraun eban gotzain lez.

Onen urrengo Pedro Nazar izan zan Kalagurri eta Naxera'ko gotzaiña eta Bizkaia'n orduan jentetza asko agaritu zan eta eleiza barriak sortu ziran.

Araba'n Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n bizi ziran kristiñauak,Armentia'n gotzaiñik ez eukelako,Kalagurri'ra deitu eben euren eleizak sagaratzeko,ango gotzaiña zala-ko urren eukena.

Armentia'ko azkenengo gotzaiña oraindiño bizi zala,1091n.urtean ,Pedro Nazar edo II Fortunio Armentia'ko gotzaiñak esan eutsolako edo erritarrak deitu eutsoelako,Arabako gotzaindegira etorri eta eleiza batzuk sagaratu ebazan,onein artean Mungia'koa.

Kalagurri'ko gotzaiñak maltzurkeriz sartu zirala Armentia'ko gotzaindegira diño edeslariak: "Usurparon la sede de Armentia".

GAMIZ'KO KAFRANGA ETXEA

Antxiñako gauzai buruz Euskalerrria'n daukagun isiltasuna,mingarria da.Ez dago munduan olako isiltasuna daukan erririk,gureak lako agiritegi urriak daukazenik.

Gamiz deritxon erritxuan antxiñakoa da Kafranga baserria,gure jaunerrian diran baserrien artean zarrenetari-koa.

XVI gizaldira arte zutunik egoan Gamiz'en, bere egoe-rea jauskorra izan arren,torre-etxe bat arrizko iru age sendoren gaiñean eta olako age baten irarrita ikurdia eukan: ponte edo bateo-ontzi baten gaiñean kurutze bat aukala eta orixe zan Kafranga etxeko leiñargien ikurdia.

Askok aztertu dabe ikurdi au eta euretatik askok irudi orrek zerbait agertu nai dauala diño,bear ba'da etxe orretan inguruko lenengo kristiñauen bateatze aundiren bat egin zala edo gitxienez katekumeno askok antxe bateoa artu ebela eta ori edestirako argi geratu daiten irarri zala ikurdi ori ezaugarri santu orreikaz.

Erritxuren bat izango zan lenengoa kristiñautzeari emen asierea emoteko,baiña ez dakigu zein,Gamiz ete da?

Eta noiz izan ete zan jazokizun aundi ori?

Ez dogu baiezen ez ukatzen jazokizun ori Gamiz'en izan zala.Ez dogu egiten basterik irudi eder ori or dagoa- la baieztatu baiño.Zalantza barik erlejiño-giroko jazoki- zun aundiren bat gogoratzen dauala be bai.

Pontea bera urez beterik,gaiñean dauan kurutzea eta eusten dautson eleizgizon baten besoa ba-dira zio esan doguna esateko eta aztertu daben askok eta aldi askotan esan dabena ez da egia izateko indarbageko gau- zea.Gitxienez ez da gauza sinistu-eziña edo amets utzez-koa.

Kafranga etxe ori antxiñakoa dala Julian Zazo Ortega VII Fernando'ren izkuillu-zaiñak esan eban.Frantzisko

Piferrer eta Antonio Rajula'k,Nobiliario de los reinos y señorios de España liburuan IV,8'an diño esan doguna dana.

Dana dala,Gamiz erri apalarentzat izan beite oroigailu onen aintza,Euskalerrri osoan antzekorik be ez daukana. (Labayru,1,147).

EUSKALDUNAK SALAMANKA'N (1635)

1635n.urtean Alaba ta Eskibel'dar Pedro aldun nagusiak batzarrean erabagi au eskatu eban:"Erki onetakoa eta Kortean Erregearen idazkari dan Etxabarri'tar Frantzisko'ri idatzi erki onetakoak eta Salamanka'n ikasle diranak babestu dagizala,irain aundiak artzen dabezelako ikertzaillaren aldetik,ikertzaile au andaluziatarra dala,orregaitik euskaldunai gorrotoa dautselako".

Barri au emoten dauan Huarte jaunak euskaldun ospetsu askoren izenak dakarz(irakasleak,ikasleak,otseñak, lekukoak eta abar) eta ango bizitzaren ikuspegi bat,gaur ezagutzen ez doguna, agertzen dau eta ikuspegi ori aztertu-bearrekoa da gure erriaren edestira sartzeko,orreitariko askok an zeregin aundiak bete ebezelako

Huarte jaunak diñozan gauzak argiak eta biziak dira eta oso onuragarria da ori aztertzeko egiten dan lana,Oiñate'n 1918n.urtean agertu eta Salamanka'n 1920n. urtean agitaratu dana.

ITZEN JATORRIA ANTXIÑA

Achille Luchaire'k euskaldunen izen bereiziaz buruz idatzi dauan liburuskan,XI,XII ta XIII gizaldiak kontuan artuta,euskeraz ezagutzen dan itz-jatorri edo etimologirik zarrena dakarsku

1044n.urtekoa da eta Gartzia Ennekones'en eskutitz baten dator,esaldi onetan" in loco qui dicitur arbea,id est, petra super petram",euskeraz:"arbea deritxon lekuan,au da, arria arriaren gaiñean".Au Leire'ko kartularioan dago, 91n.orrian.Itz-jatorri ori bitxia ta askatasunaz egiña da.

Beste agiri batzuk ikusten nenbillala,Mariano Arejita'k idatzi eban Aralar'eko santutegiari buruz dana artu dot eskuartean eta lengoa baiño 28 urte zarragoa dan itz-jatorria dakar:"... qui dicitur a rusticis aker çaltua et nos possemus dicera de vero saltum irkorum".Euskeraz:arlo- teak esaten daben aker-çaltua eta guk esango geunken akerren saltua"

Ondo euskeratu ete eban euskaldun latin-zaleak?Aker bai,ondo dago,baiña "çaltus" zugaztia edo kortabasoa dala dirudi. (Arturo Kanpion).

Olazar'tar Martin'ek

SALMOAK

51N. SALMOA JESUSEN LAGUN ZAN AMA

1

Egun batzuek pasa zituan
Ziberiastar lurrian,
ta martxoaren amalau zala
zeuden bete bearrean
Jerusalena juan bear ura;
Pazkoa zuen urrean.
Amak etxea despedituta
juan zan Jesusen aurrean.

2

Ama Birjiñak jarraitu zion
gurutzeraiño Jaunari,
aldi batzutan gelditu oi zan
erakusten jendeari,
Zabor mendian agertzean ta
baita Samaritanari;
oiñez zebiltzan nekaturikan
otoitz egiñaz Aitari.

3

Jaunaren itzak Ama Birjiñak
gordetzen zitun barruan,
eta ikasi ezin zuenai
erakutsitzen zijuan.
Jauna iltzlari naiz asitzen zan
aingeruz jakiten zuan,
ta belauniko Jesusen itzak
Amak entzuten zituan.

4

Birjiñak miñak supritu zitun
etzan Jauna ezagutzen,
etzuen Jauna adoraturten
eta etzuen serbitzen.
Grazia artu nai etzuenak
ikusten zituan galtzen,
ta odolezko malkoak miñez
Birjiñak zitun ixustzen.

5

Ama Birjiñak umiltasuna
zuan gauza guztietan
eta Jainkoak ematen zion
grazi ugari benetan.
Milagro asko egin zituan
Jesusen lagun bidetan
apostolu ta ebanjelistak
gorde azik ixilpetan.

6

Jesus ta Aman milagro asko
ixilkan gelditzea
izan zan Jaunak erabaki
ta Birjiñan eskatzea.
Joan santuak dana zekian
baiña naigo ixiltzea;
azkenik dio: "Gauz danak liburuan
ezin leike agertzea".

7

Ama Birjiñan umiltasuna
obretan zan agertua,
apostolu ta ikasleari
zan erakutsitakua..
Jaunak taldea biraldu zuan
eskubidez indartua,
biurtu zuen beren biotza
milagro askoz poztua.

8

Salbatzailleak erantzun zion
"Ori ez da poztutzeko".
Zuen izenak zeruan dauzala
au da poza artutzeko".
Jesusek amabi apostolu
artu zitun laguntzeko,
baita irurogeita amabi
ikasleak jarraitzeko.

52n. SALMOA: JAUNAK BATAIATU ZITUAN

1

Jaun Eroslea Jesusalendik
Judeara jarraituta,
bere apostolu ta ikasleak
grazi doaiz indartuta,
bataiatutzen zuen jendea
pekatuak barkatuta,
Jaunaren itzak barruz pozturik
milagruak agertuta.

2

Joan Bautista bataiatutzen
erribera Jordanean,
bataio au zan ura bakarrik
penitentzi bearrean.
Kristorengana jende geiago
bildutzen zan indarrean,
emen bete zan Bautista itza:
"Au azi, ni gutxitzean".

3

Salbatzaillea ikasleakin
bataiatzen zijuala,
Ama Birjiña berekin zuen
ezagutzen zituala
animak, nola pekatu gabe
garbi gelditzen zirala.
Birjiñak Jauna abesten zuan
poza ugaritzen zala.

4

Etsai Luzifer jeiki zedilla
Jaunak esan zionean,
Joan da Jesus arrapatzera
jeiki ziran zuzenean.
Anima asko ken zizkela,
au ezin eramanean;
"Lagundu neri bi auek iltzen
zuen indar aundiñean".

5

Etsai taldea ateria zan
Joan da Jesus galtzera
baiñan etziran iñor izan
nor ziran ezagutzera
Joan Bautistan bizitzara
eldu ziran arritzera
amorratioz biraldu zizkan
Mesias zan galdetzera.

6

Judutar aiek etsaien naiz
juan ziran au galdetzeko
Luzifer oso atento zegon
“Zer dator erantzutera
Joan santuak: “Ez naiz ni
“Edo Elias al zera?”
“Ni naizena da baso-oiua
nator bidek zuzentzera

7

Etsai arroa gelditua zan
duda aundiagokuan:
itzaren orde zala zala
arin esan ote zuan.
Joanen kontra arrabi geiago
artua zuan orduan,
asmatu zuan gerra sortzea
Erodiasek kontuan.

8

Erodes errege zegoan ta
zeukan anaian andrea,
anai Filipoi kendu ziona,
Erodiasek emaztea.
Bizi zan pekatu agirian,
zan Joanen esatea:
“Ori ez dezu libre errege,
pekatuan bizitzea”.



53n. SALMOA JOAN BAUTISTAREN ERIOTZA

1

Erregek ezagutuzten zuan
Joan au zala santua,
gogoz entzuten zion esana
ziola errespetua.
Erodiasek zan gaiztua eta
alaba zan antzekua.
Joan iltzeko etsaiak auxa
izan zan aukeratua.

2

Erodiasek etsaiak jarri
gogua Joan iltzeko,
erregeari eskatu zion
oni lepua kentzeko.
Eta erregek agindu zuan
Joan kartzelan sartzeko,
eta kartzelan sartua zan au
Erodiasek poztutzeko.

3

Erodiasek agindu zien
bere morroi gaiztoari,
iru alditan sei gizaseme
biraldu zizkan berari.
Maldizioka zigortutzera
gogor Joan Bautistari,
llagaz ta ebakiz betetzen zuen
poztutzearren amari.

4

Erregearen urte betetze
eguna eldu zanean,
Galileako aundizki danak
maian jaten zeudenean,
Erodiasek bere alaba
dantzari preparatzean,
dantzatzutean: “Nai dezun dana”
erregeak agintzean.

5

Juramentua egiña zion
emango ziola dana.
alaba jua amarengana
esan zezan nai zuana.
Eskatu zion: “Bautista orren
burua da nai dedana:
plater batean artuta nai det
ekartzea neregana”.

6

Joan santuak bere lepua
jarri zuan moztutzeko,
ta borrareruak ebaki zion
berai burua kentzeko.
Jesusek artu zuan gorputza
lurrera ez erortzeko,
Birjiñak artu zuan burua
Aitari an eskeintzeko.

7

Morroii auek an iñor zegoni
etzuen ezer ikusten,
nork eramango zuan buru
zeuden disputak egiten.
Birjiñak bere eskutan zeuka
etzekien nun zeukaten;
batek artuta danak jua zira
ematera plater baten.

8

Bautista orren anima Kristok
linbora biraldu zuan,
aingeru santu talde aundi bat
eraman zuan onduan.
An ikustean guraso santu
aiek alaitu zituan;
Jesus ta Ama agertu ziran
len bizi ziran lekuan.

Aldalur'tar Justiñe
(Klaratarra)
(Gasteiz)

“BIZKAIA” IZENA LENENGOZ

Aspaldion nabil Armando Besga Marroquin Deustu ko irakasleak idatzi dauzan liburuak irakurten. Lenengoaren idazpurua “Domuit vascones” da eta bigarrenarena “Astures et vascones”, errialde euskaldunak eta Asturias´eko Erreïñua, Euskalerrria VIII eta X gizaldien artean.”

Liburu oneik jakitun batek idatziak dira eta jakingarri asko ta zeatzak dakarrez, baiña igarten jako idazleari ez dala abertzaleen laguna. Aitatzen dauzan idazle euskaldun guztiak, Mañarikua esaterako, edo Estornes Lasa, beti izten dauz egoera txarrean.

Euskaldunak Asturias´tarren erreïñuaren menpean egon ziralda baieztatzeko alegin guztiak egiten dauz. Eta, bear ba´da ori orrelan izango zan, baiña nire ustez gutzat garrantzitsua ez da noren menpean eta noz egon garan jakitea, ori baiño garrantzi aundiagoko gauzea da, guk beti geure nortasuna zaindu dogula jakitea, eta ori argi agertzen da.

Kantabriatarrak erri bat ziran, baiña edestian galdu egin da erri ori. Ez orrelan Euskalerrria, emen gagoz, munduko errien artean bizi-bizi.

Ba-daukaguz gure edestian, kondaira lez bai beintzat, Asturias´tarraz izandako gudaldiak. Gogoratu, esaterako, Arrigorriaga´ko gudaldia eta ortik sortua izan leiteken Zugatz Maillatua´ren esangurea. Edo ni aspaldion asko arduratzen nauan Fruniz´ko Fortunio´k Asturias´tarren aurka Bakio´n izan eban gudaldia. Kondaira oneik euren sustraia dauke, zalantza barik. Or beti agertzen da Euskalerrria aurka eta burrukalaria, irabazle gaiñera, baiña Bizkaia Asturias´tarren menpean egon zala, ango erreïñuaren zati bat izan zala, ori ez dogu sarritan entzun. Egia ete da? Baietz dirudi, baiña geure nortasuna ez gendun galdu eta Naparroa´ko Erregeen menpera igaro ginduezan. Gero Gaztelakoen menpera.

Orain euskerara itzuliko dodan idatz-zati au, Asturias´eko III Alfontso erregeak idatzia da eta bere aurretiko erregea izan zan I Alfontso´ren egiteak gogoratzen dauz. Or agertzen da “Bizkaia” izena lenengoz.

“Fabila il zanean erri osoak Alfontso aukeratu eban. Eta onek, Jainkoaren eskarrez, errege-makilla artu eban. Are-rioen arrokeria beti zapaldu eban eta beronen gudarostea aurrera eroanez, Fruela anaia lagun ebalda, gudaren bidez uri asko artu ebazan: Lugo, Tuy, Oporto, Anegia, Braga uriburu, Biseo, Txabes, Ledesma, Salamanka, Numanzia orain Zamora deritxona, Abila, Astorga, Leon, Simankas, Saldaña, Amaia, Segobia, Osma, Sepulbeda, Argantza, Koruña, Mabe, Oka, Miranda, Rebenga, Karbonarika, Abeika, Zenizero, eta Alesanko eta gazteluak euren uri ta erri ta guzti, beren ezpateagaz arabiarrek il eta kristiñauak beragaz bere aberrira eroan ebazan.

Aldi onetan erritarrez ornidu ziran Asturias, Primorias, Liebana, Transmiera, Sopuerta, Karrantza, orain Gaztela deritxen Bardualiak, eta Galitzia´ren itxas-aldea, jakaña dalako Araba, Bizkaia, Aizone, eta Orduña euren erritarren eskuetan izan dirala beti, baita Iruña, (Degio) eta Berrueza be.

Gizon aundia izan zan au, Jainkoak eta guztiak maite ebena. Basilika asko egin ebazan. Amazortzi urte iraun eban bere errege-aurkian. Eta bakez il zan. Eta ezin isildu neike benetan jazo zala dakidan mirari bat. Azken arnasa emon ebanean, gau illuna isillean egoala, eta jauregikoak bere gorpua zaintzen eben artean, bat-batean, aingeru abeslarien abotsa entzun zan aize guztien artean:”Orra or zelan doan gizon zuzena eta ez da iñor orretaz arduratzen, orrelan joaten dira gizon zuzenak eta iñor ez da biotzez konturatzen. Okerkerien artetik alboratua izan da zuzena eta onen illobia bakezkoa izango da.” Jakin egizue au egia dala eta ez egizue artu ipuin lez, orrelan izan ez ba´litz naiago izango neban isillik egotea guzurak esatea baiño.”

Garrantzi aundiko agiria benetan au. Geien aztertua izan dan agiria.

Aitatu daiguzan gairik arrigarrienak.

Eskuratu ebazan eta bere erreïñua ziran urien artean, ezagunak doguz geienak, baiña batzuk gugaz artu-emon geiago dauke, esaterako, Oka edo Miranda. Beste uri batzuk erritarrez ornidu ebazala diño. Ez ete dau esan gura erri-erakundea emon eutsela? Onein artean daukaguz Sopuerta ta Karrantza, orduan ez ziran Bizkaia.

Barduliai Gaztela deritxela diño. Oraindiño ez dira agertzen euskaldun lez. Baiña gero dator ulergaitxa dan esaldi bat: Araba, Bizkaia, Aizone eta Orduña beti izan dirala bertako erritarren esku diño. Aizone, geienak diñoenez, gaurko Aiala da. Ez da errez ulertzekoa “beti erritarren esku izan dirala” diñoanean zer esan nai dauan. Antza dagoenez, bere erreïñukoak izan arren, euren eskubideak daukezala. Baiña gutzat garrantzi aundiko gauzea da, Bizkaia izena ortxe agertzen dalako lenengoz eta bere erreïñuko zatia dala.

Zein Bizkai ete da aitatzen dauana? Ez Durango-aldea, ez gaurko Enkarterria... orduan Bizkai-barrua da, ”nuklear” esaten jakona, Nerbion ibaitik sortalderantz dagoana. Len aitatu dauz Subporta ta Karrantia, antza daukanetik, Kantabria´tik urrago Bizkaia´tik baiño.

Amaitzeko, Asturiastarrakaz izandako artu-emonak ulertzeko, ez dogu aitzu bear ba-dagozela andik etorriak izan daitekezan amazapi leio Bizkaia´ko baseleizetan, erromanikuaren aurrekoak diranak. Oneik zer-ikusia dauke Asturias´eko eder-lanakaz eta VIII gizaldikoak dira. Bi dagoz Mungia´n eta bat Larrabetzu´ko Salbatzaillearen baseleizan, beste amalauak Bizkaia´n eta bat bera be ez dago Gipuzkoa´n. Orrek be adierazten dau Bizkaia´ren eta Asturias´en artean artu-emon bereziak izan dirala. Gura neuke jakin zer esan nai dauan Fruniz´ko eleizan gaur ur bedeinkatu-ontzi lez dagoan kapitela bereizi batek: Aurrean aurpegi bat eta alboetan belarriak dituala. Eskematikua da irudia eta aldi orretakoa edo lenagokoa dirudi. Zer ete da edo nondik etorria?

OLAZAR´tar Martin´ek

EZ OMEN DA DONOSTIARRIK ZERUAN (IPUIA)

Joxe Mari, Donosti zarrean jaioa zan. Eta esangai zeukan. Arrogarri zitzaion, bai! Bera baiño jatorragorik gutxi. Sagardo-zale ona!, sokamutur-zale purrukatua!

Urteroko ilbeltzean, donostiarren zeruko zaindari egunez ikustekoa zan danborradan zuzendari. Ontan ikusi ezik, nolakoa zan ez diogu ez-ta antzik emango ere. Aren aundiki itxura, aren pausoak! Eta inguruko leio ta ateak zabaldu bearra bera ikustearren, gertuan zala jendeak usaia artu ezker.

Baiño oraindiano aipatutakoak utsak dira. Sokamuturrean agertzen zan gizon gure Joxe Mari. Saiatzen zan, arranopola! Odolbilduz josia zeukan gorputza. Afi! Sokamuturra zan gauza! Onen ezean, zeruko poz guztiak etzitezkean noski aintzat artzekoak. Idi-adarretan edo-ta aidean zilipurdika noiz-nai ikusi genezakean. A ze txori txarra! Sokamutur egunez plazan galdu oi zituan beti oiñetakoak eta txapela.

Eta sagardo-zaletasuna? Sagardo ona nun? Ergobia'n? Ba, Ergobia'ra! Ua zan sagardo edatea! Egitan, irakurle, lumeroak botatzen asi ezker, motz gelditu bear. Donostiarra eta naikoa! Onuzkoan ixtilluak! Joxe Mari ta lagunen etorrera! Auen irrintzi ta abestiak! Azkenik, perrerara, zakurzulora gaba igarotzera.

Bein, ordea, Ebro'tik berako Koko-erritik gobernadore berria bidali zuten Donosti'ra. Itxuraz gizon ona. Bere erabakiak aurrera eraman bear zituanean, atzera beñere egiten etzekiana. Jaurleriak bereala zeru puxka batera etorria zala antz eman zion. Nai ta nai-ez, eskuak antxumaturik euki bear. Guda-egarri ta gudarik ez. Sua pizteko errekiñik ez? Saiatuko zan ba! Eta baita aurkitu ere. Eta sokamuturra, jolas kirten eta biozgabe ua ikusirik, dei baten indarrez bein betiko galerazi zuan.

A ze nolako biotzondokoa Joxe Mari'rena! Sukarrak artuta oeratu zan. Gurasoak, gazte zalarik joan zitzaizkiolako, mutil zar eta bakarrik bizi zan. Gaxorik zegoalarik auzoko lagun onak zaitu zuten. Bereala baiñan il zan gizajoa.

Beste munduan begiak zabaldu-ta sokamuturra bururatu zitzaion Joxe Mari'ri, izan ere aidean gora ta aidean bera bait zebillen. Baiñan, egaldi luze-xamarra irudituta bere onera etorri zanean, guztia amets! Atzean utzitako biziera gogora ekartzen alegindu zan. Donosti'ko lagunarte algaratsua, egun alaiak eta jaurleri etorberri ta aluaren egun txarrak...! Azkenik eriotza eta Donosti ederrari agur egin-bearra.

Gauzak orrela, nora jo orain? Zer egin?

Bi alderdi zeuzkan: bat goruntz, zerua. Bestea beruntz, inperua. Etzan zalantzan ibiltzeko aukera. Zeruko berriak onak zituan, eta gaiñera goialde-zalea zen, lurtarra izanarren. Gora ba! eta igotzen asi zan, igotzen... Ua gauza ederra! ta zeruko atarira iritxi zan. Paradisu artan sarrerarik izango etzuan susmoa zeukan. Au dala-ta, zeru barrutik iñork ikusi etzezan, agiri garbiko kristauren bat noiz azalduko baztar batean luzaro zai gelditu zan. Noizpeinka beruntz jotzen zituan begiak. Ene! aiek txorabio eta otzikarak! Beti goialde-zale izan eta orain dardarka. Aize osasungarriak burua arindu zion eta pentsatzen asi zan. Joxepiñaxi, Iñigo kaleko andre goieritar ona, iltzeko zorian zegoala lendik jakiña zeukan. Zeruko aitaren zurrean bereala ikusiko zuan, Jainkoak luzapenik ematen ez ba zion beintzat.

Joxe Mari'k bere artan ala zion: Joxepiñaxi bitarteko jarririk agian sar nindeke. Baiñan, nola sartu? Lagunduko naiko al nau? Nik Aste Santu'ko Tinieblas'etan elizan egin nizkion kirtenkeriak ez ote ditu oraindik gogoan eukiko?

Elizkizun oietarako, donostiar mukizuak malluz, makillaz, karrakaz eta abarraz ornuak joan oi ziran. Eta Joxe Mari'k, bein elizan ixkanbilla sortzeko garaian, iltzez ta mailluz josi zizkan atsoari bere gonabarrenak sorailuan.

Nolanai baiñan, Joxe Mari saiatuko zan atsoa goxatzen eta irabazten. Eta emakumearen mantu nasaiean gordeta zerura baietz sartu esaten zion bere buruari. Uste orretan luzaro itxoin egin bear izan zuan Joxe Mari'k.

Negua zan. Eta zeru atarian kalefazorik ez. Lendik jakin izan ba'zuan, eriotzak berokirik gabe arrapatu zuan bezela etzuan ez arrapatu izango, alajinkoa! Ai ama! Ua otza! Zekena, bai, alakoxea zan Pedro!

Noizpait, alako batean, an dator Joxepiñaxi panpoxa-panpoxa eta zuzen asko zeru-atarira.

Zurikeriak zerizkiola irten zitzaion Joxe Mari bidera. Eta denda bateko azukre guzia jan ba'lu bezela, itz auek zuzendu zizkion xamurkiro: Egun on!, Joxepiñaxi. Donosti'tik eeee?

– Ene! dardara batean esan zuan atsoak. Joxe Mari, alajaña! Zer dabilkizu zeruko atarian? Maletoretzan saiatzen al zera?

KONTU-KONTARI

– Txartela galduta nabilkizu, Joxepiñaxi. Eta au gabe ez daukat barrura sartzerik. Zu, ain ona zeran orrek, Jainkoa'ren aurrean geitu nai ba'dituzu zure onegite narok... sartu nazazu, arren! Negar zotinka esan zion.

– Nik zu sartu? Ja, jai! Ez dezu gutxi pentsatzen! San Bixente'ko Tinieblas'etan egin zenidana aztuta daukatela uste al dezu? Eta ala ere, ausartu... lotsagarri, alproja aundi ori...!

Baiñan, Joxe Mari'ren zurikeriak eta egunero sokamuturra zeru-barruan ikusiko zuala agindurik, gure atsoaren biotz biguña biguñagotu zan. Eta nola ez ba! Berauxe, goierritar andrea eta santu guztiak jan bearean ibiltzen zana izanarren, oso sokamutur zalea zan. Bein baiño geiagotan irtena zan oso pinpirin gure Joxepiñaxi leiora sokamuturra ikustera. Eta zergatik ez? Ez al genduan ba bein San Bixente'ko apaiz bat ikusi bere manteo zabalaz etxe-atari batetik zezena txuliatzen?

Nola edo ala, Joxe Mari'k sartu nai zuan zerura, besterik ez ba'zan sokamuturrak antolatzeraz. Eta Joxepiñasi'k, berriz, donostiar jolasa ikustearren pozik emango zizkan mutillari "salgai" zeuzkan irabazi eta on-egiñak.

Azken erabakiak arturik atea jo zuten. San Pedro'k, kopetillun, zeruko ta lurreko atezai guztiak bezela, barru-aldeetik trumoi-abotsez galdetu zuan: Nor da?

– Donosti'tik nator. Nik...

– Donosti'tik? Aurrera jarraitzeko astirik eman gabe moztu egin zion San Pedro'k. Donostiarrak emen sartzerik ez daukatela ez al zenekien?

Bereala ordea, zerutar ate-zaiaren aurpegia eztitu zan. Betaurrekoak ipiñi eta Ataun aldekoa zala ikusiz eta gaiñera andre elizkoi ta jainko-zalea biguinkiro esan zion:

– Sartu andre ona, sartu agudo, otz dago-ta.

Eta Joxepiñasi eta manto azpian gorderik zetorren Joxe Mari zerura sartu ziran.

Aufi! Joxe Mari zeruan pozeztitan zegoan.

Donostiarrak agurtzea izan zuan bere lenbiziko asmoa. Baiñan donostiarrik iñortxo ez! Egia ote San Pedro'ren esana? Olakorik ezin egin zeikiela esatera joan ote zan? Ez luke besterik paltako.

Ez. Donostiarra zanik etzuan aditzera emango.

Zeruan baztarrik baztar zebilela, gure Joxe Mari'k maiz topa oi zuan Joxepiñasi.

– Zer, sokamuturra noizko? Galde egin oi zion zorrozki.

Zeruan etzan bearrezkoa sokamuturra, baiñan...

Joxe Mari'ren pozaldia laburra izan zan.

Nolatan ez dakigu, baiñan San Pedro maltzurra, donostiar kaxkariñ bat zeruan sartu zala jakiñaren gaiñean zegoan.

Ikustekoa zegoan zeru-atezaia, asarre gorrian. Kaxkariña artu-ta kokotzez aurrera amildegira jaurtitzea bere gain arturik zeukan.

Amaika buruauste San Pedro'renak. Zerutarren jakinduri guztiak motz ziran donostiarra arrapatzeko.

Mikel Deuna, zerutar gudarien buruzagia, asarre. San Pedro zer esanik ez. Trumoa zirudien Etzan giro izango lurraldean.

Eta bitartean lasai zeruan Joxe Mari.

Azkenik, San Pedro'k donostiarrekin oso adixkide etzan gipuzkoar bati bere ixilkari eta kezkek azaldu zizkion.

Gipuzkoarrak aldi laburtxo eskatu zion pentsatzeko.

Alako batean, an dijoa gipuzkoarra San Pedro'rengana. Gurea diagu, gurea! esanaz.

– Zer diozu? Tira, aguro esaidazu!

– Iriyarena'ren ots biziak geldirik entzun lezaken donostiarrik ez da oraindik jai. Bizarrez ongo jantzita egonarren ala apaltasun xamurraren jabe izanarren, soiñu alai ta zoli orrek pozbizitu ta zuzpeltu egiten ditu donostiar guztiak.

Ene! San Pedro'ren poza!

Paradisuan lurretik etorritako bi txistulari ziran. Amezketar bat eta Albatzizketarra bestea. San Pedro'k bere egin-asmoa agertu zien. Zeruan, lenbiziko jaiean Iriyarena'ren doiñu-otsak entzun bear ziran derriorez.

IXILPEAN SAIOAK EGITEN ASIAK ZIRAN TXISTULARIAK. San Pedro maiz etorri oi zitzaien saioetara, gero ta sarriago. Izan ere, soiñu zoragarri zeritzaion, gero ta zoragarriago...

Zeruko jai-areto nagusia argiz eta apaingailuz dirdir zegoan. Itzez ezin adierazi ango edertasuna.

Eta... alako batean, Joxe Mari pozaren pozez zoramenak arturik zegoala, gipuzkoar txistulariak areto erdira aurreratzen ikusi zituan.

– Zer ote diagu? zion bere kolkorako Joxe Mari'k. Ai ene! Joxe Mari txuri txuri jarri zan. Jesus, Maria ta Jose! Sokamuturraren asiera zan.

Joxe Mari'k bere burua aidean ikusi zuan. Eta txapela botarik eta aufi! bizi-bizika, saltoka asi zan.

Ai, Joxe Mari gizajoa! Egin dezu egitekoa! Lau aingeru lodikote etorri zitzaizkion ingurura. Bat-batera beso banakatik sendoki artu eta zeruko atea zabaldurik inpernuruntz amildu zuten.

Fausto Arozena'k

(Euskal egokitzailea Gotzon Egaña)

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K

2004-2005 IKASTURTEA

OGEI TA AMAZAZPIGARRENA BIZKAIERAZ IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 135 €

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK
COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 -
URRUTIZKIÑA 94 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 13'AN

37º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 135 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK
COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 94 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 13 DE OCTUBRE